Egokitasuna hizkuntzaren erabileran: oinarrizkoak

Pello Esnal

Sarrera moduan

Ia batera jaso nituen, joan den azaroan, bi jardunalditan parte hartzeko gonbitak. Lehenengoa, Euskaltzaindiak antolatuta, Bilbon izan zen, azaroaren 21ean, euskalkien erabilerari buruz. Bigarrengoa hau da, Mendebalde Kultur Alkarteak eratutakoa, "Egokitasuna hizkuntzaren erabilera" izenburuaz.

Bi jardunaldien jomugek bazuten elkarren antzik, eta elkarrekin prestatu nituen ia: Euskaltzaindirako txostena lehenengo (Esnal, 2003) eta honako idazlan hau ondoren. Elkarren osagarri dira bi lanak.

Hau prestatzen hasteko, jardunaldien izenburua hartu nuen abiapuntutzat, betiere kontuan izanik Alkartearen helburu nagusietako bat: Mendebaldeko euskarak -bizkaierak- euskara batuari eskain diezaiokeen ondarea ikertzea eta bultzatzea.

Ezer baino lehen, bi puntu argitu behar izan nituen: 1) zer ulertzen dugun hizkuntzaren erabileraz eta 2) zer egokitasunaz.

Lehenengo puntuak ez du aparteko zailtasunik. Baina argi izan behar dugu, hasieratik, bi erabilera izan ditzakegula hizpide: ahozkoa eta idatzia. Hemen, bietaz jardungo dugu, nahiz eta adibide guztiak euskara idatzitik hartuak izan.

Egokitasun kontzeptuak lan handiagoak eman diezazkiguke, era askotan uler daitekeenez. Lan honetan, esanahi mugatu bat emango diogu: Joxe Ramon Zubimendik eta biok *Idazkera-liburua*-n emandakoa (Zubimendi, Esnal, 1993: 152).

> Euskara jator-zuzena da eta lehenengoan ulertzen da. Horixe dugu euskara egokiaren ezaugarri nagusia. Lehenengoan ulertzen ez dena desegokia da. Horrexekin esana dago beste guztia.

Egokitasunak, beraz, jatorra eta zuzena izatea eskatzen dio darabilgun euskarari, ahozkoari nahiz idatziari; hau da: euskara izatea eta gramatikala izatea. Hori, lehenengo eta behin. Hori gabe ez dago erabilera egokirik, ez ahozkorik eta ez idatzirik. Baina hori aurrebaldintza besterik ez da. Nahitaezkoa da betetzea, baina ez nahikoa. Horretaz gain, baldintza nagusi bat bete behar du euskararen erabilerak, egokia izatekotan: lehenengoan ulertu behar da; hau da, bat-batean, lehenengo kolpean (entzun ahala edo irakurri ahala).

Baina nola lortu horrelako baldintzak beteko dituzten testuak, ahozkoak nahiz idatziak?

Galdera horri erantzun nahian egin dut lan hau, sei puntu garatuz, apunte gisa. Oinarrizko zenbait kontzeptu eta gai azaltzera mugatu naiz. Horiek argi izanez gero, ia berez sortzen dira orientabideak edo proposamenak. Hasteko, testualitateaz eta estrategiez jardungo dugu, beste bi gairi kontrajarrita (aurkaritza dialektikoan): lehenengoa, gramatikari; eta bigarrena, arauei. Eta ondoren beste laurak izango ditugu hizpide: tradizioa, gaur egungo egoera, erdi ahozkotasuna eta bigarren ahozkotasuna, eta SAO doinua.

1. Testualitatea eta gramatika

Edozein testugintzatan (ahozkoan nahiz idatzian), gramatika nahitaezkoa da, baina ez nahikoa: gramatikaz gain, testualitatea ere izan behar dugu kontuan.

Adibide batek lagun diezaguke hori argiago ikusten. Lehen ere erabilia dugu (Esnal, 1998: 36-37), euskal gotzainen idatzi elebidun bat baliatuz (Euskal gotzainak, 1998: 14-15). Ez da badaezpadako aukera; ondo baitakigu zenbateraino lantzen eta zaintzen dituzten elizgizonek, edukiaz eta formaz, horrelako idatziak.

Honela dio erdal pasarteak, jatorrizkoak (nireak dira azpimarrak, berehalaxe ikusiko dugunaren bideragarri):

> Celebrar la Pascua de la resurrección es mirar con el corazón abierto de par en par a la vida eterna esperada como la vida definitiva y verdadera. Es reconocer el amor inmenso de Dios que nos asocia a su vida espiritual y a su gloria eterna. Es sentirse mayor y más importante que todas las cosas de este mundo. Es recuperar la libertad para usar de todo lo que hay en el mundo con sabiduría, sin ser esclavo de nada ni de nadie. Es recibir el don de ayudar a vivir a los demás en el gozo anticipado de la comunión universal.

Euskal bertsioak, ostera (berriro, nirea da azpimarra):

> Behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, piztuerako Pazkoa ospatzean. Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. Mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara. Munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. Lagun hurkoari

> bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Ikuspegi gramatikaletik begiratuta, baliokideak dira bi pasarteak. Biak dira zuzenak esaldiz esaldi. Biak daude esaldi zuzenez osatuta. Biek betetzen dituzte gramatika-arauak.

Ikuspegi testualetik begiratuta, ordea, ez dira horren baliokide. Erdarazkoa, batetik, egoki antolatuta dago, mintzagaia buru-buruan duela ["Celebrar la Pascua de la resurrección"]; eta, bestetik, mintzagai horrekin egoki lotutako esaldiz osatua, hauetako bakoitzaren hasierako "es" aditza lokarri. Euskarazko testuan, aldiz, lehenengo esaldiaren amaieran dator mintzagaia ["piztuerako Pazkoa ospatzean"], eta askoz ere ezkutuagoa da, nahiz eta badagoen, mintzagaiaren eta ondorengo esaldi bakoitzaren arteko lotura.

Bestela esanda, testu zuzena da lehenengoa (gramatikaren araberakoa), eta egokia ikuspegi testualetik begiratuta. Bigarrenak ere ez du inolako aitzakiarik gramatikaren aldetik; baina desegokiagoa da ikuspegi testualetik. Eta horrek irakurgaitzago bihurtzen du.

Nola hobetu euskal bertsioa? Nola euskaratu jatorrizko pasartea ikuspegi testualaz? Ba, esaterako, mintzagaia buru-buruan ipiniz; eta, ondoren, ageriago adieraziz esaldi bakoitzaren mintzagaiarekiko lotura; eta, ondorioz, egin beharreko gainerako aldaketak ere eginez: esaldien baitako hitzen ordenarena-eta. Honela-edo (Esnal, 1998: 38; azpimarratuta doaz mintzagaia eta lokailuak).

> Piztuerako Pazkoa ospatzean, begira jartzen gara, bihotza zabal-zabalik, behin betiko eta egiazko izango dela espero dugun bizi betera. Eta Jainkoaren neurrigabeko maitasuna aitortzen dugu, Berekin bat egin nahi baikaitu bere bizitza espiritualean eta betiereko ospean. Eta mundu honetako gauza guztiak baino gorago eta garrantzitsuago sentitzen gara.

> Eta munduko gauzak zuhurtasunez erabiltzeko askatasuna berreskuratzen dugu, ezeren eta inoren esklabo izan gabe. Eta lagun hurkoari bizitzen laguntzeko dohaina hartzen dugu, denen elkartasuna aurrez gozatuz.

Ez da, jakina, irtenbide bakarra. Ezta, seguruenik, egokiena ere. Baina balio digu, batetik, ondorio nagusi bikoitz bat ateratzeko eta, bestetik, testualitateak (eta egokitasunak) oso bereak dituen bi gai aurreratzeko.

> Ondorio nagusi bikoitza: 1) zer-nolako testu ezberdinak ekoizten diren ikuspegi gramatikal hutsez jardun ala ikuspegi testuala ere kontuan hartuz aritu eta 2) zein estu lotuta dauden, hain zuzen, ikuspegi testuala eta egokitasuna. Bestela esanda, ikuspegi testualak -eta ez gramatikalak soilik- bideratuko digu egokitasunaren lantzea.
>
> Landu beharreko bi gaiak, ikuspegi testuala euskararen erabilerara aplikatzean: testu-antolatzaileak (Esnal, 2002a) eta hitzen ordena.

Ondorio nagusi bikoitzaren eskutik, testu-ekoizpenari (emaitzari) begira jarri gara. Errepara diezaiogun orain testugintzari (prozesuari).

2. Estrategiak eta arauak

Testu bat ekoizterakoan, ezinbestekoa da gramatika kontuan hartzea. Gramatikari jarraituz -gramatika-arauak betez- sortuko ditugu testu zuzenak. Hain justu, horixe eskatzen du gramatikak: arauak betetzea.

Baina gramatikak ez du hizkuntzaren erabilera erabat arautzen. Eremu handia geratzen da arautu gabe, eta hor mugitu behar du hizkuntz erabiltzaileak. Honen esku dago erabakitzea, besteak beste, lerrokadak nola antolatu, esaldiak nola lotu elkarrekin, esaldi barruko hitzak nola ordenatu...

Beraz, estrategien alorrekoak ditugu, neurri handi batean, egokitasunarekin hain estu lotuta dauden bi gaiak: esaldien arteko lotura eta esaldi barruko hitzen ordena.

Horien erabileran, aske dago hiztuna (behin gramatika-arauak betez gero). Bere eskueran du erabakitzea nola lotu esaldiak elkarrekin eta nola ordenatu hitzak esaldiaren barruan. Aukera gramatikal bat baino gehiago du eskueran, eta berari dagokio erabakitzea zein hartu. Bat baino gehiago har ditzake; eta, gramatikalak ez ezik, egokiak ere izan daitezke. Baina aukera batzuk egokiagoak izango dira besteak baino.

Hain zuzen, egoki erabakitzeko gaitasunari deitzen zaio gaitasun estrategikoa. Eta horrek berdin balio du bizitzaren edozein arlotarako. Pilotari estrategikoa izango da, esaterako, pilota aukeratzen dakiena, jokatzen ari dela pilota nora eta nola bota dakiena... Eta berdin gertatzen da hizkuntzaren erabileran ere. Hiztun eta idazle estrategikoa izango da hitzak ordenatzen eta esaldiak lotzen dakiena. Gramatikak joko-arauak jarriko dizkio; baina, behin horiek betez gero, eremu handia geratzen zaio erabakiak hartzeko.

Goiko adibidera itzuliz, erdal bertsioaren egilea aukera horien jabe da, eta estrategikoki jokatu du, erabaki ezin egokiagoak hartuz. Euskal itzultzailea, ordea, ez da noski horretaz ohartu eta (ia-ia) gramatikaren arauak betetzera mugatu da. Jokabide hau hedatu samarra dago, eta bi oinarri izan ditzake: ikuspegi gramatikala nahikoa dela ustea (oso zabaldua egon den ustea; eta oraindik ere dagoena) eta arauekiko mendekotasuna.

Arauekiko mendekotasuna zein errotua dagoen ilustratzeko, gogora dezagun nola jokatzen den gurean sarritan: konturatu zenbaitek hutsuneak dituela euskararen erabileran eta Euskaltzaindiaren azken arauei buruzko ikastaroa eskatu / eskaini (aztertu egin behar zein den lehenagokoa: eskaera ala eskaintza), noiz eta irtenbidea, arauen aplikazioan ez baina, estrategien erabileran dagoenean.

Baina estrategien planteamendua ere ari da gurean indar hartzen. Esaterako, horrexetaz jardun genuen Zubimendik eta biok *Idazkera-liburua*-n, "Nola sortu idazki egoki eta ulerterrazak" atalean (Zubimendi, Esnal, 1993: 178-235), nahiz eta erabili ez *estrategia* terminoa bera. Termino hau oraintsu erabili dut lehenengo aldiz, "Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa" artikuluan (Esnal, 2002b), azken batean *Idazkera-liburua*-n landutakoa azaltzeko, baina era osoagoan.

Liburu berean, bi idazle hautatu genituen eredutzat: Orixe eta Koldo Mitxelena. Baina ez, horien idazkera itsu-itsu jarrai dezagun; baizik eta horien antzera joka dezagun hizkuntz baliabideen erabilera estrategikoan.

Hain zuzen, oso eragingarria da horrela ulertzea tradizioa ere.

3. Tradizioa: estrategi ondarea eta ohiturak

3.1. Tradizioa egiten

Esan ohi da hiztun eta idazle onek egiten dutela hizkuntza. Eta, hain zuzen, estrategien gai honek lagun diezaguke hori egoki ulertzen.

Hiztun eta idazle estrategikoek aukera egokiak egiten dituzte behin eta berriro, komunikazioa bideratze aldera. Eta aukera horiek eskarmentu eta ohitura bihurtzen dira, lehenik hiztun eta idazleentzat. Baina, horretara mugatu gabe, gizatalde baten ondare ere bihur daitezke aukera (estrategia) horiek, pixkana-pixkana. Eta ondare horrixe deitzen diogu, hain zuzen, tradizio. Horregatik esan dezakegu hiztun eta idazle estrategikoek egiten (moldatzen, eratzen) dutela hizkuntza.

3.2. Bizkaiera idatzia

Ikuspegi horrek berdin balio du ahozko tradiziorako zein tradizio idatzirako. Baina gera gaitezen tradizio idatzia nola eratzen den ikusten.

Hasieran, ahozko euskara izan zen. Eta ahozko euskara hori, mendeen joanean, zortzi euskalkitan gauzatu da (Bonaparteren arabera: bizkaiera, gipuzkera, goi-nafar hegoaldekoa, goi-nafar iparraldekoa, lapurtera, behe-nafar sartaldekoa, behe-nafar ekialdekoa eta zuberera euskalkietan). Baina zortzi euskalki horietako lau soilik bihurtuko dira euskalki idatzi (euskalki literario): lapurtera lehenik, zuberera ondoren, eta gipuzkera eta bizkaiera gero.

Euskalki idatzi bihurtze horretan, idazle jakin batzuek izan dute protagonismoa. Bizkaieraren kasuan, Juan Antonio Mogelek (1745-1804) eta Pedro Antonio Añibarrok (1748-1830), Villasantek dioenez. Baina gehiago ere badio Villasantek (1988: 222-223):

> Bizkaiera literarioaren aita edo sortzaile Juan Antonio Mogel dugu. Honek Markinako euskara-modua hartu zuen oinarritzat; baina, jakina, bizkaiera mintzatuaren barnean badira era eta modu asko, gauza denetan Markinakoaz bat ez datozenak. Garai berean Mogelen kideko eta adiskide den Aita Añibarro arratiarrak beste tradizio zabalago bati ematen dio hasiera. Horregatik bizkaiera literarioaren barnean bi tradizio daudela esan daiteke. Baina Markinakoak -hots, Mogelenak- izan du lehentasuna.
>
> Hortik ikusten da literatur euskalkiak hizkera batu batzuk direla, idazleen lanari esker eratuak, nahiz eta toki eta aldi jakin bateko hizkera mintzatuaren gain eratuak izan.

Horren harian, merezi du hona aldatzea bi autore horiek idatzitako testu bana. Mogelena da lehenengoa. *Ipuinak* liburutik hartutako lehenengo ipuina: "Otso ta bildotsarena" (Mogel, 1995: 45-46).

> Bildotsa ta otsua elduzirian bakotxa bere aldeti edatera ibaira. Otsuak edaten eban goiko aldian, ta bildotsak beekuan, edo uraz beeti. Otsuak ikusirik bildotsa, dirautsa:

-Zetako loitu deustazu ura edaten nenguan artian?

Bildots gaixuak erantzun eutsan otzantó:

-Zelan loitu neinkezun zuri urá zure aldeti badator nik edaten dodana?

Otso dongiak, egijari jaramon baga, dirautsa:

-Eta zetako dongaró esaten deustazu?

Bildotsak erantzun eutsan:

-Ezdeutsut gaiskirik esan, ez lotsarik galdu.

Orduban, arretondo txaarraz, begirakune astun ta albokerako bategaz:

-Sei illabete dirá zure gurasuak egin eustala beste ainbeste.

-Zelan ori izan leike -dirautsa bildotsak-, artietan jaijo ezpainintzan! Zetako da niri erruba ezartia!

-Dan legez dala -dino otsuak-, zuk galdu deustazu neure laarra, bedarra jaanaz. Lapur zital bat zara.

-Bene benetan dirautsut -esan eutsan bildotsak-, ez deusteela oraindiño agiñak urten, ta ezin nik jan neikezun bedarrik.

Otsuak ez eukanian zer erregutau geijago, dirautsa:

-Ezdakit nik zelan erantzun zure berbai, baña apaldu biar dot zugaz.

Alan artu ta sabelera eban.

Ipuin onek esan gura dau, dongeen artian egijak ez daukala lekurik. Indarra bakarrik dala aginduten dabena. Erri

> bakotxian dagoz onelango otso gosestuak. Egiten dirá biotz gogorreko; diru gosiak darabiltz atxakija ta esesino billa edaateko nekezaleen odola ta argalen biarra eurenduteko.
>
> Orregaitino,
>
> *Egija euki egizu gauza alpertzat*
> *donga asmodun ta asko jakinentzat.*

Añibarroren pasartea, berriz, *Gueroco guero* liburuaren lehen lerrokada da (Añibarro, 2001, 3-4):

> Iracurle bizcaytarra, oná emen ceure escuetan ta ceure eusqueran *Axularren* liburu famaduna. Euscaldunen Ciceronen icenaz icentaturic eta aitaturic ibilli da beti *Axular*; bada Aita Larramendi euscaldun guztien maissuac diñolez (P. M. Larramendi *Diccion. Triling.* fol. xxxv), bere eusquerea da ederra, nastu-baguea, uts-garbia ta ugaria; baieztu ta eracusten ditu eguiac Escritura, Elessaco Aita Santu, guertaldi, antz-irudintza adigarri arguiacaz; aguertzen ditu becatuac biciro ta arguiro euren ezaintasun itsusi baltz guztiaz. Beraigaitic diño, euscaldun guztien escuetan ibilli bear leuquela librú onec.

Merezi du, aldi berean, aztertzea eta erreparatzea nola ordenatzen dituzten bi autoreek testu horietan hitzak esaldiaren barruan. Eta mereziko luke aztertzea, testu luzeagoak hartuta, nola lotzen dituzten esaldiak; eta parekatzea, halaber, garai hartako beste idazle batzuen testuekin eta ondorengo batzuekin. Hitz batean, ikustea nola ari ziren euskalki idatziak eratzen eta elkarrekin lotzen. Hala, esaterako, hobeto ulertuko genuke zer geratu zen XX. mendearen hasieran.

3.3. Etena: doinu-aldaketa eta testu-antolatzaileen murrizketa

Berriro ere, Luis Villasanterena da hitza (Villasante, 1976: XIV):

> Gure artean euskarari lege bat, disziplina bat emateko egin den saiorik eta ahaleginik handiena joan den mende [XIX.aren] azkenean eta gurearen [XX.aren] aitzinaldean egin da. Denok ditugu gogoan horretan saiatu direnen izenak: Arana, Azkue, Txomin Agirre, Lizardi, Altube, Orixe, eta abar.
>
> Halako aro berri bat sortzen da orduan euskal literaturan. Lanean ari diren langileok badute gogoan ideal bat, jomuga eta xede bat, eta berek amestutako lege horren arabera lantzen dute euskara. Ez dira idazleak bakarrik. Badira gramatikalariak ere, bada Euskaltzaindia, badira irakasleak, etab.

Eta (Villasante, 1975: XII):

> Bada prosa egiteko era internazional bat, behintzat sartaldeko herri eta kultura denek onartua (zenbait xehetasunetan hizkuntza bakoitzak bere erara etxekotuz). Euskal literatura zaharra ere bide horretan barrena zebilen, gramatikalariek sintaksi era hoiek galeraztera etorri ziren arte. Eta orduan zer gertatu zen? Euskerari bideak idiki beharrean, hertsi egin zaizkiola. Hizkuntza bera besoz eta zangoz katigatuta gelditu zaigula.
>
> Zorionean Ipar Euskal Herrian neurriz kanpoko gehiegikeriok eta iraultzok ez dira horrenbestera heldu. Han hemen baino goizago hasi ziren euskeraz idazten; literatur tradizioa hemen baino sendoagoa eta umotuagoa zegoen, eta hemen bezalako etenik ez da han gertatu.

Hortxe dago hitz (eta errealitate) madarikatua: etena. Eten horrek, hala ere, dena baino txikiagoa eman lezake, Villasanteren azken hitzen arabera: "hemen [Hego Euskal Herrian] bezalako etenik ez da han [Ipar Euskal Herrian] gertatu". Gauzak xeheago aztertuz, ordea,

etena bikoitza izan zela adierazten dute hitz horiek. Batetik, eten egin zela bizkaiera eta gipuzkera idatziek XX. mende hasiera arte egindako ibilbidea; eta, horrekin batera, egoera mingarriagoa eginez, eten egin zela Iparraldeko eta Hegoaldeko euskalki idatziek elkarren arrimuan egiten ari zirena.

Bada, ordea, besterik ere. "Etena" dio Villasantek. Eta ondo dio. Baina "inboluzioa" ere esan zezakeen. Izan ere, ordu arte egindako bidean atzeraka hasi baitziren gipuzkera eta bizkaiera: egindako bidea desegiten.

Eten eta inboluzio horiek bi eragin izan zituzten euskal prosa-moldean: 1) doinu- eta esaldiaren osagaien ordena-aldaketa eta 2) testuantolatzaileen murrizketa eta prosa-jarioaren etena.

Lehenengo eraginaz, lau pasarte irakurriz jabe gaitezke. Txomin Agirrerena da lehenengoa, Orixerena bigarrena eta Koldo Mitxelenarena eta Patxi Altunarena beste biak.

Txomin Agirreren pasartea 1901ean argitaratu zen lehenengo aldiz, *Kresala* eleberriaren hitzaurrean (Agirre, 1988: 42; letrakera etzana egilearena da; azpimarra, nirea):

> Autortuten dot, begian aurrean daukagun egia da ta, danok era batean izkiratutea askozaz dala garbi, obe ta errazagoa, ta orren bearrean gagozala; baña nik badakit irakurleak eurak daukezela erru andiak (parkatu, baña olango egia edozeñi esan bear jako), irakurlerik geienak erbesteko izkira-legeai lotuegiak dagozala, euren nagitasunak eta ezer ikasteko gogorik ezak ekarri eutsezala illuntasunik, nasterik eta okerrik andienak; bada euskeraz oitu izan diran *izkirakinde edo izkiralege* [ortografi arau] guztiak ordu erdi baten ikasi leikez edozeiñek, gura izan ezkero. Laster eukiko dogu danontzat lege bat, al danik errezena, garbiena ta onena, ta orduan ikusiko da

> irakurlien esate ori euren alperkeria estalduteko akiakula bat zan edo ez.

"Laster eukiko dogu danontzen lege bat" iragartzen du Agirrek 1901ean. Hamazazpi urte geroago -1918an-, "Acento vasco" artikulua plazaratzen du Orixek. Eta lan horretan dugu ondorengo pasartea, "Gernikako arbola" kanta ezagunaren hasiera (Gernikako arbola / da bedeinkatua) hizpide hartuta idatzia (Ormaechea, 1918: 8; berriro ere, egilearena da letrakera etzana, eta nirea azpimarra):

> Queriéndonos decir el bardo Iparraguirre que el árbol de Guernica era bendito, nos dijo: "el árbol de Guernica es el que ha sido bendecido". Solo por no haber puesto el *da* al fin, con lo cual alteró no solamente la sintaxis, sino también el acento; ó por mejor decir, no solamente alteró el acento, sino también la sintaxis; <u>que lo uno y lo otro son inseparables en nuestra lengua</u>.

Hementxe dago, nire ustez, Txomin Agirrek iragarritako legearen muina eta oinarria: doinua eta joskera bereiztezinak (omen) dira euskaraz. Bestela esanda: nolako doinua, halako joskera (hitz-ordena); eta alderantziz: nolako joskera (hitz-ordena), halako doinua. Azken batean, Orixeren oinarrizko lege horren garapena besterik ez da, funtsean, Altuberen *Erderismos* (Altube, 1975). Are gehiago: Orixeren prosa-moldea ere oinarrizko lege horren ondorioa da. Horregatik idatziko du Koldo Mitxelenak, 1961ean, Orixe hil berritan (Mitxelena, 1988: 119):

> Orixez geroztik doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal-prosak, atsegin bazaigu eta ez bazaigu.

Laudoriozko hitzak dirudite. Patxi Altuna begi-zorrotzari, ordea, zalantza sortzen diote. Horregatik idatziko du (Altuna, 1988: 20):

> [Mitxelenak] behin Orixez aitortu zuen [...]: "Doinu berri batean ikasi du mintzatzen euskal prosak, atsegin bazaigu eta

> ez bazaigu". Azken hitz misteriozko horiek dudan jartzen gaituzte berari atsegin zitzaion ala ez. Ez gara nor bai ala ez esateko.

Gaur, ordea, zalantza erretorikoa deritzogu Patxi Altunaren horri. Eta salatzen du, hain zuzen, XX. mende hasierako etenak euskal prosa-moldeari eragindako aldaketa bat: doinu-aldaketa; edo esaldiaren baitako hitzen ordenaren aldaketa; aldaketa bat eta bera baitira.

Esaldiaren osagaien ordena-aldaketa hori ozen azaldu du Bittor Hidalgok, bere doktore-tesian (Hidalgo, 1994). Funtsean, honetan datza aldaketa: SAO ordena (subjektua, aditza, osagarriak), XX. mende hasiera arte pixkana-pixkana gailentzen ari zena, SOA ordena bihurtuko da ondoren apurka-apurka.

Etenaren bigarren eragina, berriz, Villasantek azalduko digu egoki (Villasante, 1975: IX; letrakera lodia, jatorrizkoa):

> Patricio Orkaiztegi jaunak 1906 urtean, eta Tolosan, liburuska bat ateratzen du: "Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestra idioma euskaro".
>
> Esaldiak muntatzeko erregelak ematen ditu hark ere. Jaun haren ustetan euskal idazle zahar guztiak arbuiagarriak dira, kutsatuak daude. Zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta kutsatuagoak, gainera. Eta kutsadura hori beren joskera traketsean ezagun da.
>
> **Zein**, **zergatik**, **zeren**, **ze**, **ezen** eta horrelako anaforikoen erabilkera bekatu astuntzat jotzen du Orkaiztegik. Zein-i buruz hara zer dioen: "Este pronombre relativo... imitación servil del relativo de los idiomas neolatinos, es el mayor borrón que nuestros abuelos pudieron aceptar en el euskera" (15 orrialdean).

Eta aurreraxeago (1975: X-XI; azpimarrrak nireak dira):

> Gure idazle zaharrek, euskeraz idazteko behar den tresna, egokitua eta paratua eman ziguten. Baina ondoren etorri ziren gramatikalariek haien lana onartu, findu eta osatu beharrean, madarikatu egin zuten, gaitzetsi. Orduan haustura gertatu da, eta hori hizkuntzaren kaltetan izan da.
>
> Esate baterako, hor daude juntagailuak (konjukzioak, Etxeberriren hitza erabil dezadan), esaldien artean loturak egiteko enplegatzen diren hitzak. Gauza jakina da zenbat eta eskolatuagoa izan hiztuna, orduan eta juntagailu gehiagoren premia sumatzen duela.
>
> Eta halaber hizkera idatzian (mintzaira denetan ikusten denez), baliakizun, aparailu eta tresna gehiago behar izaten dira; hitz egiteko behar izaten direnak baino gehiago, noski. Guk, berriz, baserritar eskolagabearen hizkera hartu ohi dugu sarritan ispilu bezala, eta neurri horrekin neurtu nahi izaten dugu euskera idatzia. Baina bistan da tajugabekeria bat dela hori. Honekin ez dut esan nahi herriaren esanmoldeetatik ez dugula deus ikasi behar; aitzitik, mila aldiz esan dut baietz. Baina ez ditzagun gauzak bere neurritik atera. Eskolagabearen eta eskolatuen hizkera, hizkuntza denetan, desberdin samarra izan ohi da. Era berean, hitz egitean erabiltzen den hizkera eta liburuetakoa ez dira berdinak izaten, eta abar.
>
> Gure artean, berriz, gramatikalarien hertsikeria eta aurre iritzi batzuengandik, idatz euskera zeharo eta oso-osoan aho-hizkeraren neurrietara ekarri nahi izaten da; eta aho-hizkeran bertan ere orokor diren usadio batzuk ez dira haintzat hartuak izan.
>
> Adibide bat jar dezadan: esaldi kausaletan, mintzatzerakoan, ez da euskaldunik honelako ilatibo batzuk erabiltzen ez

> dituenik: **zeren**, **zergatik**, **ze**, **zergatik ze**, **ezen**, **zeren eta**... Baina idaztekoan beldurrez ibiltzen gara horrelakoetara jotzeko. Eta zergatik? Gramatikalariek, horrelako esaldietan, **-lako**, **-ta** eta **bait-**ekin egindako konstrukzioak baizik ez dituztelako onartzen.

Villasantek berak esaten du zer ondorio ekarri dion bigarren eragin honek euskararen prosa-moldeari, lehengoak (hitz-ordena eta doinua aldatzeak) sortutako kalteak areagotuz (Villasante, 1975: XII):

> Eta orduan zer gertatu zen? Euskerari bideak idiki beharrean, hertsi egin zaizkiola. Hizkuntza bera besoz eta zangoz katigatuta gelditu zaigula.

Eragin eta ondorio horiek erabat baldintzatuko dute XX. mendeko prosa, eta euskal prosaren gaurko egoera.

4. Euskal prosaren gaurko egoera

Euskal prosaren gaurko egoeraz jarduterakoan, komeni da, hasteko, balorazio orokor bat egitea. Luis Villasantek lagunduko digu honetan ere (Villasante, 1988: 142):

> Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkarhezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.
>
> Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Nekez egin daiteke balorazio hoberik. Hitz horiek, gainera, ez dute indarrik galdu azken hamabost urteetan. Oraindik ere asko dago egiteko gure prosa moldatzen, finkatzen eta batzen.

Hala, hiru euskal prosa-moldez hitz egin dezakegu, XXI. mendearen hasieran: 1) klasikoa, azken ehun urte hauetan apenas landu dena, 2) XX. mendean gehien garatu dena, Altuberen legeei jarraiki eta molde landua xede, eta 3) erdi-ahozkoa (edo bigarren ahozkotasunaren araberakoa).

Merezi du zerbait eranstea prosa-molde bakoitzari buruz. Bigarrenaz, oraindik orain hitz egin du Ibon Sarasolak (García-Inés, 2003: 12):

> Kostatu zaigu baina azkenean ikasi dugu hizkuntza berri batean, hau da, euskara batuan, idazten. Kostatu zaigu, oso hizkuntza xelebrea zelako hasiera batean. Eta hor ibili gara 20 edo 30 urte inguru horretan neurria hartu gabe euskara batu horri. Nik uste dut Anjel Lertxundiren 'Otto Pette'-z geroztik hasi ginen arrazoizko neurrietan sartzen, eta orain bada euskara batuan idazten dakien jendea.

Hitz horiekin bat etorri ala ez (elkarrizketa batetik hartutakoak dira), balio lezakete gaurko egoeraren berri ematen hasteko eta zer egiten ari garen nolabait azaltzeko, betiere aipatu berri dugun bigarren prosa-moldea hizpide.

Baina baditugu beste bi prosa-molde ere. Eta horietaz ere esan beharko zerbait, berriro modu telegrafikoan.

5. Erdi-ahozkotasuna eta bigarren ahozkotasuna

Erdi-ahozkoa (edo bigarren ahozkotasunaren araberakoa) deitu diogu hirugarren prosa-moldeari. Zehatz eta osa ditzagun gauzak.

Erdi-ahozkotasunaz, oso oker ez banabil, Juan Mari Lekuona mintzatu zen gurean lehenengo aldiz: euskaltzain oso izendatu zuten egunean, "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz" hitzaldian (Lekuona, 1989).

Ekitaldi hartan zegoen Luis Villasante euskaltzainburua. Eta Lekuonak esandakoaz baliatu zen gero, Euskaltzaindiak Gernikan estilistikaz egindako jardunaldietan. Besteak beste, honela mintzatu zen gernikarra (Villasante, 1991: 607):

> Behin baino gehiagotan esan dut prosa egiteko moldea oraindik normaldu gabe eta helgabe, adin batera heldu gabe dugula, alegia, eta ez idazle zahar batzuengan aski zoritua ageri ez delako —zoritua, idazle haiek Etzinalde osoan onartzen zen perpausak muntatzeko moldea, egokitzapen batzuekin, onartu ez zutelako-. Baina, gure artean maiz gertatu diren iraultzekin, erregebide horretatik saihestu egin ginen gero.
>
> Juan Mari Lekuona euskaltzain berri jauna, bere sarrera-hitzaldian, erdi ahozkotasunaren estiloaz mintzatu zitzaigun. Horrek esan nahi du euskal literaturan badagoela, alde batetik, estilo bat zeharo ahozko hizkuntzarena dena; bestetik, hizkuntza idatziarena; eta beste bat, nolabait esan, bien bitartekoa, tartekoa, alegia. Hizkuntza idatziarena, oraintsu esan dugun bezala, ez da bere adin betera heldu oraindik, besteak beste, gure idazle zaharren tradizioa, gehiegizko purismo baten ondorioz, eten egin zelako.

Dena den, badago alde txiki bat. Lekuonak, *erdi-ahozkoa* terminoa, herri-literatur lanak izendatzeko soilik darabil. Villasantek, ordea, edozein testuri aplikatzen dio; eta honela erabiliko dugu geuk ere.

Erdi-ahozko molde horietakoak dira, esaterako, Auspoa bildumako ia-ia liburu guztiak. Izan ere, oso labur esanda, ahozko hizkeran oinarrituta idatziak izan dira; ia hitz egiten den bezala (edo bertsoen kasuan, ia kantatzen diren bezala). Horregatik, ez dut uste gehiegizkoa denik Antonio Zavalari "herri-prosaren aita zabala" deitu izana (Esnal, 1999: 100-101).

> Funtsean, molde bereko prosa da idazle horiena [Auspoa bilduman idatzi dutenena], nahiz eta azal ezberdineko izan, euskalkien arabera. Behartu gabeko prosa, ahozko jariotik oso gertukoa. Herri-prosa. Ortografiaz ez da batua izango, baina muinaz bai. Are gehiago: formaz euskara batuan idatzitako zenbait idatzi baino batuagoa da. Euskalduna baitu muina. Eta, hori gutxi balitz, ereduzko prosa dugu, gainera: hau da, idatzi batek testu izateko bete behar dituen baldintzak betetzen dituena. Barne-koherentziaren jabe da: esaldiak elkarrekin egoki josita dituelarik, eta hitz-kateak behar bezala antolatuta.
>
> Beraz, badugu, bai, euskaraz idazteko molde bat; heldua eta umotua, Antonio Zavalak erakutsi digun bezala. Ez dela nahikoa? Konforme. Itzulpenetarako-eta beste molde bat ere garatu behar dugula, nazioarteko prosa-moldearen arabera-koa? Konforme. Baina horrek ez gaitu, noski, daukaguna gutxiestera eraman behar. Are gutxiago, hainbat alorretarako egokiagorik aurkituko ez dugunean; esaterako, irrati, telebista eta ahozko jardunetarako. Izan ere, hain ulergaitz egingo ote litzaiguke komunikabideetako zenbait saio, ahozkotasunaren legeak beteko balitu?
>
> Bai. Badugu euskal herri-prosa, Antonio Zavalak bere AUSPOA liburu-sailean eskuzabalez bildua eta maitasun handiz zaindu eta ondua. Bertsolaritzak zor izugarria diola tolo-

> sarrari? Ez dio txikiagoa herri-prosak. Bera baitu aita zabala. Bera ari baitzaigu AUSPOA altxor paregabea osatzen.
>
> Horregatik, Pello Zabaleta poetaren hitzak errepikatuz amaituko dut. Joxerra Garziak dakartza, Pelloren *Bigarren bizia* liburuaren azkenaldean (841. or.): 'AUSPOA irakurri gabe ez lukeela inork euskaraz ezer idatzi behar'. Eta kito.

Baina erdi-ahozkotasunak badu bigarren aldi bat: bigarren ahozkotasunarena. Zertxobait aurreratua dago aurreko lerro horietan, eta gehiago zehaztu beharko dugu orain. Lehenago, ordea, hitz egin beharra dago ahozkoaren eta idatziaren arteko jausiaz. Eta, horretarako, Walter J. Ong adituarengana jotzea izango dugu egokiena. Hona hemen zer dioen (Ong, 1987: 21-22):

> Considerar la tradición oral o una herencia de representación, géneros y estímulos orales como "literatura oral" es algo parecido a pensar en los caballos como automóviles sin ruedas. Desde luego, es posible intentarlo. Imagínese escribiendo un tratado sobre caballos (para la gente que nunca ha visto ninguno) que comience con el concepto, no del caballo, sino de "automóvil", basándose en la experiencia directa de los lectores con los automóviles. Procede a profundizar sobre los caballos, refiriéndose siempre a ellos como "automóviles sin ruedas"; explica a los lectores muy acostumbrados al automóvil, que nunca han visto un caballo, todos los puntos de diferencia, en un esfuerzo por extirpar toda noción de "automóvil" al concepto "automóvil sin ruedas", a fin de dotar al término de un significado estrictamente equino. En vez de ruedas, los automóviles sin ruedas tienen uñas agrandadas llamadas cascos; en lugar de faros o quizás espejos retrovisores, ojos; a cambio de una capa de laca, algo llamado pelo; en vez de gasolina como combustible, heno; y así sucesivamente. Al

> final, los caballos sólo se componen de lo que no son. Sin importar cuán precisa y minuciosa sea tal descripción por omisión, los lectores conductores de automóviles que nunca han visto un caballo y que sólo oyen hablar de "automóviles sin ruedas" con seguridad se llevarían un extraño concepto de un caballo. Sucede lo mismo con aquellos que hablan de "literatura oral", es decir, de la "escritura oral". No es posible describir un fenómeno primario comenzando con otro secundario posterior y reducir poco a poco las diferencias sin producir una deformación grave e inoperante. En efecto, haciendo las cosas al revés -colocando el carro delante del caballo-, resulta absolutamente imposible descubrir las verdaderas diferencias.

Benetako alde horietaz jabetzeko, egoki etorri zaigu komunikabide elektronikoen erabilera, W. Ong-ek berak dioskunez (Ong, 1987: 12):

> Nuestra comprensión de las diferencias entre la oralidad y la escritura nació en la era electrónica, no antes. Los contrastes entre los medios electrónicos de comunicación y la impresión nos han sensibilizado frente a la disparidad anterior entre la escritura y la oralidad. La era electrónica también es la era de la 'oralidad secundaria', la oralidad de los teléfonos, la radio y la televisión, que depende de la escritura y la impresión para su existencia.

Eta hortxe dugu, hain zuzen, *bigarren ahozkotasuna* terminoa ("oralidad secundaria"); baita horretaz zer ulertu behar dugun ere: telefono, irrati eta telebistetako ahozkotasuna; ahozkoa dena, bai, baina idatzian oinarritutakoa.

Luze hitz egin beharko genuke honetaz. Hasteko, *bigarren* horrek *secundario* adierazten duela azalduz. Baina gera gaitezen bizpahiru kontu oinarrizkorekin.

Lehenengoa, arestian aurreratu duguna: erdi-ahozko prosa-moldea eredu da bigarren ahozkotasuna lantzeko, eta komunikabideetako zenbait hizkuntz arazo konponbideratzeko.

Bigarrena: oso egiteko garrantzizkoa izan dezakete euskal komunikabideek euskal gizartea berr(alfabetatzen).

Hirugarrena (alferrikakoa izan beharko lukeen oharra): erdi-ahozkoa izatea (edo bigarren ahozkotasunaren ezaugarriak izatea) ez dago formaren baitan (dena delako ortografiaz edo euskalkian idatzita egotearen baitan). Besteak beste, testu egokiak dira erdi-ahozkoak: lehen irakurraldian ulertzen direnak. Eta egokitasuna, testualitatearen legeek betetzeak bermatzen du; ez, besterik gabe, ortografia zuzenak edo euskalki batekoa izateak.

6. SAO doinua

Bigarren ahozkotasunaren ondoren, merezi du bigarren doinua ere aipatzea. Aipatu, besterik ez bada ere.

Subjektua Aditza Osagarriak hitz-ordenari dagokion doinuaz ari naiz; doinua hau kontrajarriz SOA doinuari. Labur esanda, kontua ez da doinu bat beste batez ordezkatzea; hau da, SOA doinua gaitzetsi (galdegaiaren teoriak lehen doinu bihurtu duena) eta horren ordez SAO doinua ezartzea. Baina, bai, indartzea erabat zokoratua dagoen doinua (idatzian askoz zokoratuagoa, ahozkoan baino). Biak baitira zuzenak (gramatikalak); eta batzuetan, behintzat, egokiagoa izan baitaiteke -eta horixe dugu hemen hizpide: egokitasuna- SAO doinua, SOA baino.

Azken batean, ohitura-kontua (tradizio-arazoa) da. Eta, bila hasiz gero, ez dugu ibili beharko oso urrutira joaten. Hona hemen, esaterako, testu berri bat (Haritschelhar; Salaburu, 1999: XV):

XX. mendeak euskararen alorrean ezagutu ditu bi hizkuntzalari haundi, biak euskaltzainak eta biak unibertsitateko katedradunak. Bietarik gazteena, euskalduna, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Koldo Mitxelena izan da, tesia irakurri zuenetik, zinezko maisua bai euskal ikerketetan eta bai Euskaltzaindian. Haren obra publikatua izana da, idatzi dituen liburuak eta artikuluak baliatuak dira edozein tesitan mundu zabalean.

Zaharrena, René Lafon, sortu zen Merignac hirian 1899-an. Frantziako eskola nagusietan estudioak eginik (Ecole Normale Supérieure de la rue d'Ulm) filosofia irakasle izana da Alençoneko, Paueko eta Bordeleko bigarren mailako ikastetxeetan. Pauen bizi zelarik, Vendryes hizkuntzalariaren aholkuari jarraikiz, oporrak pasatzen zituen Larreñe Zuberoko herri tipian euskara ikasi nahiz. Hamar urteren buruan menderatzen zuen xuberera ez zituelarik batere baztertzen bertze euskalkiak. Berak salatu du zer lan nekea izan zen euskararen ikastea: "Nik üskararen ene bürialat sarrarazteko behar ükhen khosta xüt eta lüze bat igan, Larrañekua. Biga bostetan igan dit, huñez, khargatürik, ekhitolzian. Ordian gazte nündüzün."

Ez dut uste horren zaila izango zaigunik aurkitzea SAO doinuko testuak, pasarteak eta esaldiak. Ezta doinu hau dagokion unean erabiltzea ere.

Aipuak eta bibliografia

AGIRRE, Txomin (1988): *Kresala*, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak, 19.

ALTUBE, Seber (1975): *Erderismos*, Bilbo, Indauchu.

ALTUNA, Patxi (1988): "Aurkezpena", in Koldo Mitxelena, *Euskal idazlan guztiak I: Bertso berriak, berriketan, zinea eta adabakiak*, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak, 21: 15-33.

AÑIBARRO, Pedro Antonio (2001): *Gueroco guero*, Bilbao, Euskaltzaindia: Euskararen lekukoak, 22.

ESNAL, Pello (1998): "Koherentziaz", in *Jakin,* 107: 31-47.

ESNAL, Pello (1999): "Herri-prosaren aita zabala", in *Bertsolari,* 34: 100-101.

ESNAL, Pello (2002a): "Testu-antolatzaileak", in *Hizpide*, 50: 23-36.

ESNAL, Pello (2002b): "Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa", in *Hizpide*, 51: 19-33.

ESNAL, Pello (2003): *Ahozko hizkeratik hizkera idatzira* (Euskaltzaindiak Bilbon 2003ko azaroaren 21ean euskalkiaz antolatutako barne-jardunaldian banaturako txostena).

EUSKAL GOTZAINAK (1998): *Exhortación pastoral de los obispos de Pamplona-Tudela, Bilbao, San Sebastián y Vitoria. Cuaresma - Pascua de resurrección / Iruñe eta Tutera, Bilbo, Donostia eta Gasteizko gotzainen artzain aholkua. Garizuma - Piztuerako Pazkoa*, Donostia, Idatz.

GARCÍA-INÉS, Nora (2003): "Dagoeneko sarean da 'Ereduzko Prosa Gaur' egitasmoa", in *Campusa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 35: 12-13.

HARITSCHELHAR, Jean; SALABURU, Pello (1999): "Aitzin solas", in *Vasconiana*, Bilbo, Euskaltzaindia: Iker, 11: XV-XVI.

HIDALGO, Bittor (1994): *Hitzen ordena euskaraz*, Donostia: argitaletxearen izenik gabe, 1994 (doktore-tesia: bi liburuki).

LEKUONA, Juan Mari (1989): "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz": in *Euskera* XXXIV: 17-44.

MITXELENA, Koldo (1988): *Euskal idazlan guztiak V: Literaturaren inguruan I*, Euskal Editoreen Elkartea, Klasikoak, 25.

MOGEL, Juan Antonio (1995): *Ipuinak*, Labayru Ikastegia, Bilbao Bizkaia Kutxa, Eibarko Udala: Ego Ibarra Batzordea, Markina-Xemeingo Udala.

ONG, Walter J. (1987): *Oralidad y escritura*, México, Fondo de Cultura Económica.

ORMAECHEA, Nicolás (1918): "Acento vasco", in *Revista Internacional de los Estudios Vascos IX*: 1-15. Berrargitalpenak: Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969, 9-10-11; Nikolas Ormaetxea "Orixe" (1991): *Idazlan guztiak III. Artikulu eta saiakerak*, Eusko Jaurlaritza, Etor: 470-478.

VILLASANTE, Luis Villasante (1975): "Hitzaurre gisa", in Seber Altube, *Erderismos*, Bilbo, Indauchu (Orain Sorta, 1): V-XII.

VILLASANTE, Luis (1976): "Seigarren edizioari aitzinsolasa", in Pedro Axular, *Gero*, Oñati, Jakin: IX-XXXIV.

VILLASANTE, Luis (1988): *Euskararen auziaz*, "Luis Eleizalde" saila, 9. liburukia, Oñati (?), Editorial Franciscana Aranzazu (?).

VILLASANTE, Luis (1991): "Gernikako euskal jaien (1888) oroitzapenetan estilistikaz lehen jardunaldiak. Euskaltzainburuaren agurra": in *Euskera*, 36: 603-607.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello (1993): *Idazkera-liburua*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.